

ELENA VIGUERET - ANDRAGOTO ATENEOA -

## “Andragoto ez da taberna, mugimendurako espazio irekia izatea nahi genuke”

■ Ostiralean asanbladarako deia egin zuten Andragoto Ateneoaren oinarriak eztabaidatu eta proposamenak jasotzeko ■ Herriko talde eta pertsonen deia egin nahi diete proposamenak egin eta aktibitateak antolatzeko.

**ANDRAGOTO** Ateneoa aurtengo urtarrilean ireki zen eta herrian nola funtzionatu duen ikusi eta gero elkartearen oinarriak jartzen ari dira orain. Elena Viguere izan zen ateneoaren ideia izan eta Andragoto ireki zuenetako bat. Orain herriko talde eta pertsonen deia egin nahi diete proposamenak egin eta aktibitateak antolatzeko. Ostiral honetan izan zen aurkezpena egin eta proposamenak eztabaidatzeko asanblada, baina, ideiak izan ezkerro badago proposamenak egiteko aukerarik oraindik ere.

### ■ Ze harrera izan du Andragotok herrian?

Urtarrilean Andragoto ireki genuenean ez genuen hau zer den azaltzeko aurkezpenik egin, bakoitzak bere ondorioak ateratzea nahi genuen eta. Ateneo bat zela esan gabe ireki genuen, ideia bere kabuz osatzea nahi baikenuen. Jendeak ideia asko egin ditu Andragotoren inguruan: askok pentsatu dute hau taberna zela; beste batzuek kalamu-gune bat zela pentsatu dute; beste batzuek aldiz jarrera itxia izan dute ez zekitelako zer zegoen honen atzean.

### ■ Zergatik egin duzue aurkezpena orain, ireki eta 10 hilabete beranduago?

Orain gauzak inoiz baino argiago ditugulako. Hilabeteak pasa ditugu eztabaidan, esperientzia ikusiz eta gauzak hobetzen. Orain bada-



Elena Viguere Andragotoko hemerrotekan.

kigu zer nahi dugun, eta momentu ona dela iruditzen zaigu. Espero dugu proiektuari buruz jendeak iritzia ematea eta parte hartzea. Izan ere, gure aurkezpena proposamen bat da eta jendearen iritzia jaso nahi genuke hori osatu edota aldatzeko.

### ■ Zein da Andragoto Ateneoaren proiektuaren oinarriko ideia?

Andragoto mugimendurako espazio irekia izatea nahi genuke. Adierazpen askatasuna, pertsonak eta beren ideiak errespetatuko diren lekua izatea nahi genuke, non denen ahotsak entzun ahal izango diren.

### ■ Parte hartzea haundia izan al da jende aldetik?

Jende asko hurbildu da gauzak antolatzea eta proposamenak egitera, baina, nik uste dut gero eta jende gehiago hurbildu orduan eta hobeto izango dela. Ideia gehiago izango ditugu, aberatsagoa izango da eta ez gara betikoon ideietan ataskatuta geratuko. Andragoto beti irekia egon beharko luke eta garatuz.

### ■ Nola antolatuko duzue Andragoto egin nahi diren ekintzak aurrera ateratzeko?

Aproposena lan taldeak osatzea dela pentsatzen dugu, gai bakoitzaren inguruan lan talde espezifikoak sortzea eta

aktibitateak antolatzea. Bestetik sozioak egin eta ordaintzeko errazak diren kuotak jarri nahi genituzke. Horrela proposatzen diren aktibitateak egiteko fondo bat

“Aprapososena da gai bakoitzaren inguruan lan talde espezifikoak sortzea, eta aktibitateak antolatzea”

izango genuke. Orain arte barran atera dugun diruarekin zerbitzarien lana eta publizitatea ordaintzeko iritsi zaigu, baina, hortik aurrerako gauzak ezin dira diru horrekin ordaindu. □

## ■ FUTBOLA

### Hernani zuloatik ateratzera Zubipen Zestoaren kontra

GORENGO mailan Hernanik Zestoaren kontra jokatu du gaur etxean. Loraren mutilak 16garren dihoaz 6 punturekin, eta aurreko asteko arnastuari beste 3 punturen lasaitasuna ematera aterako dira. Dagoeneko zazpi partidu jokatu dituzte. Hernanik bi irabazi eta bost galdu ditu, irabazitako biak kanpoan. Zubipe, beraz, antzu dabil aurtan eta ea gaur zer bait ematen duen. □

## ■ BOLEIBOLA

### Hernani - Deustu

EMAKUMEEN taldeak Hernanin jokatu du gaur ligako partidua. Hernaniarrek Deustuko taldea izango du kontrario eta partidua 11:00etan jokatu dute, kiroldegian. □

## ■ ERRUGBIA

### Hernani hirugarren garaipenaren bila

HERNANIK La Unica taldearen kontra du gaur ligako hirugarren partidua, eta hirugarren garaipenaren bila aterako dira Benbenen mutilak. Hernanik denboraldi hasiera ona egin du eta ondo ematen ari da jarritako helburuak betetzeko pausoak. Partidua, 12:00etan, Landaren. □

### Bandak kontzertua Sandiusterrin

MUSIKA Bandak kontzertua emango du gaur Sandiusterrin, Udalak antolatuta. Kontzertua 12:00etan izango da eta hasieran minutuko isilunea egingo dute Luis Berrondo Bandako kide zenaren oroimenez. □

**Eguzki perfumeria**

**Eguzki perfumeria**

Gure dendan, behar dezuna daukagu.

- ▶ Perfumeria
- ▶ Opariak
- ▶ Edertze gela
- ▶ Solariuma
- ▶ Ileapaindegia

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

**ARALAR TABERNA**

MASAJEA  
KIROL MASAJEA  
KIROPRAKIA  
Tlf: 943 333 515 / 636 571 110  
Gaizka Mendikute  
Labunbe Berri 34-3.A-HERNANI

**DORRONSORO**


**OKINDEGIA**

Bertan egindako kalitatezko ogia

J.Dorronsoro Okindegia, S.L.

Lizeaga, 7 943 33 36 18 -20120 HERNANI





Joanito Oartzabal bere espedizioetako bat aurkezten. (Argazkia. Argazki Press)

## Joanito Oartzabal eta Josune Bereziartu Hernanin, Mendizale Astearen barruan

■ Oartzabalek 14 zortzimilakoetara egindako igoerak azalduko ditu argazkitan eta Bereziartuk Bloke Labur-etatik Naranjorako eskaladen berri emango du.

MENDIRIZ Mendik aurkeztu du aurtengo Mendizale Astea. Azaroaren 3tik 16ra izango da, eta Hernanin izango dira munduko zortzimilako mendi gehiena igo dituen eta munduko eskalatzailerik onena. Josune Bereziartu eskalatazailea azaroaren 11an etorriko da eta Bloke Labur-etatik Bulnesko Naranjorako esperientziak kontatuko ditu. Joanito Oartzabal azaroaren 12-an izango Biterin, eta munduko 14 mendi altuenetara egindako igoerak azalduko ditu Biterin.

### Egitarau zabala

Oartzabal eta Bereziartuz gain, Mendiriz Mendik ikastaro eta emanaldiz betetako astea antolatu du. Mendizale Astea izar konstelazio eta astroei buruzko ikastaro bate-

### 'ZERUARI BEGIRA'

Mendiriz Mendik antolatuta, Aranzadik izar konstelazioei eta astroei buruzko ikastaroa emango du azaroaren 3-5 bitartean.

kin hasiko da. Ikastaroa Aranzadi Zientzia Elkarteak emango du eta azaroaren 3, 4 eta 5ean izango da, 20:00etatik 22:00etara. Izena ematea urriaren 27tik 31era da, Mendiriz Mendin bertan (astelehen, ostegun eta ostiral, 20:00-21:00, 943-332745).

Horretaz gainera, Mikel Nazabalek Aigüestortes baren

rrena egindako travesia baten berri emango du, eta herriko mendizaleen diapositiba emanaldiak ere izango dira. Javier Albisturrek Chileko Atacama egindako bidaia azalduko diapositibetan eta Joanra Jodarrek *Munduko gizakiak* bilduma azalduko du. Urtero bezala, Mendiriz Mendi elkarteko bilduma ere izango da.

### Diapositiba lehiaketa

Mendizale Astearen uteroko ekitaldia da Diapositiba lehiaketa. Aurten, 24garrena izango da. Bukatzeko, azaroaren 16an, igandean, Bazkide eguna izango da mendi buelta egingo dute Herrerako gainatik Toloñora.

### Proiektzioak Biterin

Proiektzio guztiak Biterin izango dira, 19:30etan. □

## Gripearen kontrako kanpaina urriaren 30ean bukatuko da




Dagoeneko, iaiz baino % 10 gehiago bakunatu dira aurten.

GRIPEAREN kontrako kanpaina urriaren 30ean bukatuko da eta Hernaniko osasun arduradunek arrisku taldean daudenei txertoa hartzeko deia egin diete. Oraingoz, iaiz baino % 10 gehiago bakunatu dira eta 2.700 inguru dira txertoa hartu dutenak.

Hernanin astearte, azteazkena eta osteguna dira bakunatzeko egunak, 09:00etatik 14:00ak arte. Txertoa joan eta momentuan ematen dute, eta ez dago ordua edo txanda hartzen ibili beharrik. □

## HITZ BITAN



Goian, grafittiak egiten eta behean sarituak.

### ✓ BERRIAK ELKARTEA

**Graffiti lehiaketa.** Sebastian, Hernanin bizi den irlandarra irabazi du Berriak elkarteak antolatutako graffiti lehiaketa. Bigarren, Sergio Mambrillas gelditu da eta hirugarren Gurutz Oartzabal. Sarituek 120, 75 eta 50na euro eraman zituzten. Parte hartze ona izan zen eta ikusmiran ere ibili zen jendea. Berriak Elkarte kale animazioa bultzatzeko ekitaldiak bultzatzen ari da eta gustora gelditu da erantzunarekin.

### ✓ BERTSOLARITZA-GIPUZKOAKO TXAPELKETA

**Unai Agirre Ordizian.** Gipuzkoako Bertsolari txapelketako saioa jokatuko da gaur Ordizian. Final laurdenetako bigarren saioa da eta Hernanitik Unai Agirrek kantatuko du. Besteak: Alfontso Jimenez, Unai Muñoa, Iker Zubeldia, Felix Zubia eta Leire Ostolaza. Saioa Herri Antzokian izango da arratsaldeko 17:00etan.

### ✓ MUSIKA

**Aritz Sound System, Gunean.** Igandean Tilosetan egiten zen egiten zen musika festa Gunea zerbezerian izango da igande honetan. Musika jartzailea Aritz Sound System izango da, eta musika beltza jarriko du. Emanaldia 18:00etan hasi eta 20:00ak alde arte izango da. Musika emanaldia igandero egiteko asmoa dute.

### ✓ PELOTA

**Manzidor-Martinez Realaren kontra.** Manzidor Martinezek Realaren kontra jokatuko dute Gipuzkoako txapelketako partidua, gaur 10:30etan kiroldegiko frontoian. Horretaz gainera, ondorenean, beste hiru partidu jokatuko dira. □



**ESKERTZA**

**Luis Berrondo Ayerza**

Urriaren 20an hil zen

Luisen familiak eskerrak ematen dizkizuegu egun hauetan gurekin izan zareten guztoi, eta zuen laguntza eta babesa eman diguzuen denoi. Eskarrik asko.

Luisen familia

Hernanin 2003ko urriaren 26an

**ZERBITZUAK**

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Taxiak: 943 550093</li> <li>☛ Udaltzaingoa: 943 333288</li> <li>☛ DYA: 943 464622</li> <li>☛ Autobusak: 943 556662</li> <li>☛ Anbulatorioa: 943 006666</li> <li>☛ Jokalari anonimoak: 943 331103</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>☛ Egunez: Bilbao-Sagastiberrri Urbieta 7 ☎ 943 552941</li> <li>☛ Gaez: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514</li> </ul>

**IRAGARKI MERKEAK**

Emakume bat behar dugu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: **943 55 27 79**

Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko, goiz eta arratsalde: 07:30etatik 11:00etara eta 16:30etatik 19:00etara : **658 73 88 32** (iluntzean)